1307

LEHIAKETA PUBLIKOA. Iragarpena, botazio papeletak eta kartazalak, Euskal Autonomi Elkarteko hiru lurralde historikoetako hauteskunde aktak eta gainerako inprimaki-ereduak, kartazalak, informazio-orriak, ohartarau-manuala eta abarrak, denak ere Eusko Legebiltzarrerako 1994ko hauteskundeetarako direnak, esleitzeko dena. (C02/39/1994 esp.).

Xedea: iragarpen honen idazpuruan ematen dena, honako lote hauetan banatuta:

1 lotea: Araba Lurralde Historikoko botazio papeletak eta lurralde historiko horretarako diren zazpi hauteskunde akta autokopiatibo.

2 lotea: Bizkaia Lurralde Historikoko botazio papeletak eta lurralde historiko horretarako diren zazpi hauteskunde akta autokopiatibo.

3 lotea: Gipuzkoa Lurralde Historikoko botazio papeletak eta lurralde historiko horretarako diren zazpi hauteskunde akta autokopiatibo.

4 lotea: Euskal Autonomi Elkarte osorako diren botazio kartazalak.

5 lotea: Euskal Autonomi Elkarte osorako diren gainerako hauteskunde kartazalak.

6 lotea: Araba Lurralde Historikorako diren gainerako hauteskunde inprimakiak.

7 lotea: Bizkaia Lurralde Historikorako diren gainerako hauteskunde inprimakiak.

8 lotea: Gipuzkoa Lurralde Historikorako diren gainerako hauteskunde inprimakiak.

Lehiatzaileek, administrazio eta berariazko klausulen pleguari eransten zaion ekonomi eskaintzaren ereduari jarraiki, lote baterako edo guztietarako egin dezakete eskaintza

Aurrekontua: kontrataren gehienezko aurrekontua berrogeita sei milioi (46.000.000) pezetakoa da, loteen arabera banatuta:

1 lotea: lau milioi berrehun eta berrogeita hamar mila (4.250.000.-) pezeta.

2 lotea: hamazazpi milioi (17.000.000.-) pezeta.

3 lotea: hamar milioi berrehun eta berrogeita hamar mila (10.250.000.-) pezeta.

4 lotea: lau milioi zazpiehun eta berrogeita hamar mila (4.750.000.-) pezeta.

5 lotea: hiru milioi (3.000.000.-) pezeta.

6 lotea: milioia zazpiehun eta berrogeita hamar mila (1.750.000.-) pezeta.

7 lotea: bi milioi (2.000.000.-) pezeta.

8 lotea: hiru milioi (3.000.000.-) pezeta.

Behin-behineko fidantza: lote bakoitzeko, behin-behineko fidantzari dagozkion zenbatekoak eskatuko dira, baldin eta lehiatzaileari sailkapenik eskatzen ez bazaio.

Sailkapena, ondoren zehazten den moduan, hainbat lotetara aurkezten diren lehiatzaileei eskatuko zaie, baldin eta euren aurrekontuak hogeita bost milioi (25.000.000) pezetatik gorakoak badira.

Gainerako kasuetarako, behin-behineko fidantza lez,

1307

CONCURSO PUBLICO. Anuncio para la adjudicación de la confección y distribución de las papeletas y sobres de votación, así como de las actas electorales en los tres Territorios Históricos de la Comunidad Autónoma del País Vasco, y del resto de los diferentes modelos de impresos, sobres, hojas informativas, manual de instrucciones, etc. para las Elecciones al Parlamento Vasco 1994. (Exp. C02/39/1994).

Objeto: El que figura en el encabezamiento del anuncio, dividido en los siguientes lotes:

Lote 1: Papeletas de votación del T.H. de Araba-Alava y siete actas electorales autocopiativas para dicho T.H.

Lote 2: Papeletas de votación del T.H. de Bizkaia y siete actas electorales autocopiativas para dicho T.H.

Lote 3: Papeletas de votación del T.H. de Gipuzkoa y siete actas electorales autocopiativas para dicho T.H.

Lote 4: Sobres de votación para toda la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Lote 5: Resto de sobres electorales para toda la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Lote 6: Resto de impresos electorales para el T.H. de Araba-Alava.

Lote 7: Resto de impresos electorales para el T.H. de Bizkaia.

Lote 8: Resto de impresos electorales para el T.H. de Gipuzkoa.

Los licitadores podrán presentar oferta a cualquiera de los lotes o a su totalidad, siguiendo el modelo de proposición económica que se adjunta al Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares.

Presupuesto: El presupuesto máximo de contrata es de cuarenta y seis millones (46.000.000) de pesetas, estando dividido este presupuesto máximo por lotes según se detalla a continuación:

Lote 1: cuatro millones doscientas cincuenta mil (4.250.000.-) PTA.

Lote 2: diecisiete millones (17.000.000.-) de PTA.

Lote 3: diez millones doscientas cincuenta mil (10.250.000.-) PTA.

Lote 4: cuatro millones setecientas cincuenta mil (4.750.000.-) PTA

Lote 5: tres millones (3.000.000.-) de PTA.

Lote 6: un millón setecientas cincuenta mil (1.750.000.-) PTA.

Lote 7: dos millones (2.000.000.-) de PTA.

Lote 8: tres millones (3.000.000.-) de PTA

Fianza Provisional: Se exigirán los correspondientes importes de fianza provisional por cada lote, siempre que no se le exija clasificación al licitador.

Se exigirá clasificación, conforme se especifica a continuación, a cualquier licitador que se presente a varios lotes de modo que la suma de sus presupuestos supere los veinticinco millones (25.000.000) de PTA.

En el resto de los casos deberán constituir en concep-

ondoren adierazten diren zenbatekoak jarri beharko dituzte:

1 lotea: laurogeita bost mila (85.000.-) pezeta.
2 lotea: hirurehun eta berrogei mila (340.000.-) pezeta.
3 lotea: berrehun eta bost mila (205.000.-) pezeta.
4 lotea: laurogeita hamabost mila (95.000.-) pezeta.
5 lotea: hirurogei mila (60.000.-) pezeta.
6 lotea: hogeita hamabost mila (35.000.-) pezeta.
7 lotea: berrogei mila (40.000.-) pezeta.
8 lotea: hirurogei mila (60.000.-) pezeta.

Sailkapena: hainbat lotetarako eskaintzak egin eta horien aurrekontua hogeita bost milioi (25.000.000.-) pezetatik gorakoa bada, lehiatzaileek, orduan, III taldea, 8 azpitaldea eta D kategoria izan beharko dute.

Burutzeko epea: esleipenaren berri ematen den egunaren biharamunean hasiko dira kontratu honen gai diren lanak; oinarri-arau teknikoen pleguko lote bakoitzari dagozkion eraskinetan zehazten diren epeak bete beharrekoak izango dira beti, Eusko Legebiltzarrerako 1994ko hauteskunde-prozesuari dagokion epearen barruan.

Bulegoak: administrazio eta berariazko oinarri-arauen plegua, oinarri-arau teknikoen plegua eta kontratua hobeto ulertzeko ezagutu beharko liratekeen gainontzeko elementuak, Eusko Jaurlaritzako Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzan daude lehiatzaileen eskuragarri (Wellingtongo dukea 2, beheko oina, Vitoria-Gasteiz).

Eskaintzak noiz eta non aurkeztu: administrazio eta berariazko oinarri-arauen pleguko eraskinean ematen den ereduaren arabera bete behar diren eskaintza ekonomikoak, eskutan edo EKAko 100. atalean finkatzen den moduan aurkeztu beharko dira Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzan (Wellingtongo dukea 2, beheko oina, Vitoria-Gasteiz), 1994ko apirilaren 27ko 10:00ak baino lehen.

Eskaintzak agertarazteko ekintza publikoa, Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzaren batzar gelan egingo da, 1994ko maiatzaren 2ko 12:00etan.

EKAko 100. atalean finkatzen denaren araberako eskaintzarik jasotzen bada, 1994ko maiatzaren 9ko 12:30etan egingo da agertarazketa.

Presakotzat deklaratzea: presaz bideak eginarazi beharrekotzat deklaratu du espediente hau Kontratazio Organuak 1994ko martxoaren 9an eman zuen erabakiz.

Vitoria-Gasteiz, 1994ko martxoak 23.

Ondare eta Kontratazio zuzendaria,
JOSE MIGUEL GARCIA GOMEZ.

to de fianza provisional las siguientes cantidades:

Lote 1: ochenta y cinco mil (85.000.-) PTA.
Lote 2: trescientas cuarenta mil (340.000.-) PTA.

Lote 3: doscientas cinco mil (205.000.-) PTA.
Lote 4: noventa y cinco mil (95.000.-) PTA
Lote 5: sesenta mil (60.000.-) PTA.
Lote 6: treinta y cinco mil (35.000.-) PTA.
Lote 7: cuarenta mil (40.000.-) PTA.
Lote 8: sesenta mil (60.000.-) PTA

Clasificación: Aquellos licitadores que presenten ofertas a varios lotes de modo que la suma de sus presupuestos supere los veinticinco millones (25.000.000) de PTA, deberán estar en posesión de la siguiente clasificación: Grupo III, Subgrupo 8, Categoría D.

Plazo de ejecución: Los trabajos objeto de este contrato se iniciarán el día siguiente al de la notificación de la adjudicación, siendo en todo caso preceptivos los plazos de entrega que se especifican en los anexos correspondientes a cada lote del Pliego de Bases Técnicas, dentro del período correspondiente al proceso electoral de las Elecciones al Parlamento Vasco 1994.

Oficinas: El Pliego de Bases Técnicas, Pliego de Bases Administrativas Particulares y demás elementos que convenga conocer para la mejor inteligencia del contrato se encuentran a disposición de los licitadores en la Dirección de Patrimonio y Contratación del Gobierno Vasco (planta baja), sito en Avda. Duque de Wellington, 2 de Vitoria-Gasteiz.

Plazo y lugar de presentación de las ofertas: Las proposiciones económicas, ajustadas al modelo que figura como anexo del Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares deberán presentarse, en mano o en la forma prevista en el artículo 100 del R.C.E., en la Dirección de Patrimonio y Contratación, Avenida Duque de Wellington n.º 2, planta baja, de Vitoria-Gasteiz, con antelación a las 10:00 horas del día 27 de abril de 1994.

El acto de apertura de proposiciones, que será público, tendrá lugar en la Sala de Reuniones de la Dirección de Patrimonio y Contratación el día 2 de mayo de 1994 a las 12:00 horas.

En caso de recibirse alguna proposición de la forma prevista en el artículo 100 del R.C.E., la referida apertura se trasladará al día 9 de mayo de 1994 a las 12:30 horas.

Declaración de urgencia: el citado expediente está declarado de tramitación urgente por resolución del Organo de Contratación de fecha 9 de marzo de 1994.

Vitoria-Gasteiz, a 23 de marzo de 1994.

El Director de Patrimonio y Contratación,
JOSE MIGUEL GARCIA GOMEZ.